

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

78. zenbakia

Data 2013-04-25

2 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

361/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 15ekoa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 670, 671 eta 672 eredu berriak onartzen dituenak.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

361/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 15ekoa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 670, 671 eta 672 eredu berriak onartzen dituenak.

Abenduaren 26ko 5/2001 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituenak, aldaketa handiak sartu zituen zerga alorrean. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan ere eragin zutenez, orain komeni da zerga horren autolikidazio ereduak aldaketa horietara egokitzea.

Bestalde, urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuaren bidez Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartu dela-eta, zerga hau modalitate desberdinetan autolikidatzeko erabiltzen diren eredu jarraibide eta edukiak eguneratu beharra dago.

Gaur egun indarrean dauden ereduak abenduaren 30eko 631bis/2005 Foru Aginduak onartu zituen, hain zuzen ere Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko erabili beharreko 670, 671 eta 672 eredu berriak onartzen dituenak.

Aurrekoa aintzat hartuta, eredu berriak onartu behar dira aipatutako xedapenek onartu zituzten aldaketetara egokitzeko.

Horiek horrela, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga autolikidatzeko 670, 671 eta 672 ereduak onartzea.

Bat. Onarturik geratzen dira Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren 670, 671 eta 672 ereduak, foru agindu honetan hurrenez hurren I., II. eta III. eranskin gisa ageri direnak.

Eredu horiek paperezko modalitatean baino ezingo dira aurkeztu.

Bi. 670 eredu dokumentu bakar batek osatzen du, eta oinordetzen autolikidazioei dagokie. 4 ale ditu (informatikarena, Administrazioarena, interesdunarena eta entitate laguntzailearena), bai eta bosgarren orri bat ere, aurrealde eta atzealdean eredu betetzeko jarraibideak jasotzen dituenak.

Hiru. 671 eredu ere dokumentu bakar batek osatzen du, eta Dohaintzen autolikidazioei dagokie. Kasu honetan 4 ale baino ez ditu: Informatikarena, Administrazioarena, interesdunarena eta entitate laguntzailearena. Jarraibideak azken alearen atzealdean ageri dira.

Lau. 672 eredu dokumentu bakar batek osatzen du, eta bizitza aseguruak jasotzeagatik aurkeztu behar diren autolikidazioei dagokie. Kasu honetan ere, aurreko eredu bezala antolatuta dago, eta jarraibideak azken alearen atzealdean ageri dira.

2. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga autolikidatzeko 670, 671 eta 672 ereduak aurkeztera behartuak.

Bat. Ohiko egoitza Espainian duten zergadunak daude behartuta, obligazio pertsonalarengatik, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztera, honako kasuotan:

a) «Mortis causa» moduko eskurapenetan, sortzapen egunean kausatzailearen ohiko egoitza Gipuzkoan dagoenean.

b) Bizitza aseguruaren onuradunek aseguruaren heriotzarengatik jasotako kopuruaren kasuan, sortzapen egunean aseguruaren ohiko egoitza Gipuzkoan dagoenean.

c) Ondasun higiezinaren dohaintzetan, ondasun horiek Gipuzkoan kokatuta daudenean.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeak 108. artikuluan aipatutako baloreen doako eskualdaketak.

d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, sortzapen egunean dohaintza-harbitzailearen ohiko egoitza Gipuzkoan dagoenean.

Bi. Orobat, zergadunak atzerrian baldin bada ohiko egoitza, dagokion eredu obligazio errealearengatik aurkeztu beharko du honako kasuotan:

a) Edozein motatako ondasun eta eskubideen eskurapenetan, guztiak euskal lurraldean kokatzen direnean, han gauzatu daitezkeenean edo bertan bete behar direnean, baldin eta Gipuzkoan kokatutako, bertan gauzatu daitezkeen edo han bete behar diren ondasun eta eskubideen balioa handiagoa bada beste bi lurralde historikoetako edozeinetan duten balio baino.

b) Bizitzaren gaineko aseguruaren kontratuetatik eratorritako kopuruak jasotzean, baldin eta kontratua egoitza Gipuzkoan duten aseguru-etxeekin egin bada, edo kontratua Gipuzkoan izenpetu bada bertan jarduten duten atzerriko entitateekin.

3. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren 670, 671 eta 672 ereduaren xedea eta edukia.

Bat. Kasuan kasuko ereduaren jarraibideetan eskatzen diren datu guzti-guztiak adierazi behar dira autolikidazioetan.

Bi. Orobat, autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko dira zergaren erregelamendua onartzen duen urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuaren 44. artikuluan eta dagokion ereduaren jarraibideetan ezartzen diren dokumentuak.

4. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga autolikidatzeko 670, 671 eta 672 ereduaren aurkezpen tokiak.

Bat. Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak aipatzen dituen entitate laguntzaileen bitartez ordaindu behar dute subjektu pasiboek autolikidazioaren zenbatekoa. Hori egin ondoren, bidezko dokumentazioa aurkeztu behar dute Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan edo Herritarren Arretarako bulegoetan.

Bi. Autolikidaziotik ez bada ordaintzeko zerga kuotarik ateratzen, autolikidazio hori zuzenean aurkeztu behar da Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan edo Herritarren Arretarako bulegoetan, dagokion dokumentazioarekin batera.

5. artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren 670, 671 eta 672 ereduak aurkezteko epea.

Bat. Subjektu pasiboek epe hauen barruan aurkeztu behar dute autolikidazioa eta, hala badagokie, ordaindu behar dute zerga zorra:

a) «Mortis causa» eskurapenetan eta bizitza aseguruetan, sei hilabeteko epean, kausa-tzailearen heriotza egunetik aurrera edo heriotzaren deklarazioak irmotasuna hartzen duenetik aurrera.

Epe hori bera aplikatuko zaie usufuktuduna hiltzean gauzatu behar diren usufuktu eskurapenei, jabaria «inter vivos» egintza bidez zatibanatua egon arren.

b) Gainerako kasuetan, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, egintza edo kontratua gauzatu edo egin ondorengo egunetik aurrera.

Bi. Nolanahi dela ere, aurreko apartatuko a) letran «mortis causa» eskurapenatarako ezarritako epea amaitu aurretik, epe hori sei hilabetez luzatzea eskatu ahal izango da urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuak, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 41. artikuluan adierazten dituen ondorioekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta, bereziki, abenduaren 30eko 631bis/2005 Foru Agindua, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga aitortu-likidatzeko 670, 671 eta 672 eredu berriak onartzen dituena.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu honek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean hartuko du indarra.

Donostia, 2013ko apirilaren 15a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(4017) (4008)

I ERANSKINA



II. ERANSKINA



III. ERANSKINA



